# Euskal AEko BPGk urte arteko %2,2ko hazkundea izan du 2015eko lehen hiruhilekoan

## *Hiruhileko artean, %0,6ko hazkundea*

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %2,2ko hazkundea izan du 2015eko lehen hiruhilekoan urte artean, urtaro- eta egutegi-eraginak deskontaturik, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundea ehuneko hiru hamarren handiagoa da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean %0,6ko hazkundea, 2014ko laugarren hiruhilekoan baino hamarren bat azpitik.




Eskaintzaren ikuspegitik, 2015eko lehen hiruhileko urte arteko hazkundea izan da zerbitzuek jokaera hobea izan dutelako, eraikuntzaren beheratze-erritmoa moteldu delako eta industrian hazkunde-erritmoa apaldu delako.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, %1,4 gehitu da 2015eko lehen honetan, urte arteko laugarren tasa positiboa jarraian. Tasa hau aurreko hiruhilekoa baino lau hamarren handiagoa da. Hiruhileko artean %0,3ko hazkundea dugu, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago.

***Informazio gehiago:***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.:* 945 01 75 62
*Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Prentsa-ohar gehiago*
*Euskal AEKo hiruhileroko kontuak. Aurrerapena. Datu-bankua*